

pertsona arteko trebetasunak...

Enpatia.

Gainerakoen balioak, iritziak eta kualitateak ulertzeko trebetasuna.

Entzute aktiboa.

Gainerakoei entzuteko eta erabateko arreta jartzeko trebetasuna eta sentsibilitatea, elkarrizketan nagusitu gabe eta gainerakoen jarioa eten gabe.

Adierazpen argia eta laburra.

Gertakariak eta iritziak labur eta zuhutasunez adierazteko gaitasuna, idatziz nahiz ahoz.

Adierazgarritasuna.

Nor bere ideiak irmotasunez adierazteko eta gure eskubideak errespeta dakizkigun babesteko gaitasuna, betiere gainerakoen ideiak eta eskubideak errespetatzen ditugun bitartean. Gure betebeharrak betetzeko borondate irmoa.

Gainerakoen gaineko ardura.

Gainerakoei beren zereginetan eta lanetan laguntzeko gaitasuna. Gainerakoen zailtasunen eta kezken aurrean sentsibilitatea.

Talde-lana.

Zeregin partekatuak helburu, beste batzuekin batera jarduteko ahalmena, bai taldearen gidaritzan, bai taldekide soil gisa. Norberaren nahiez gainetik, taldearen premiak finkatzeko ahalmena.